

## 1. eta 2. GAIAK

1. Zer esan nahi du LADME hitzak? Farmakologiaren zein atalek ikasten du?
- 2.- Zein da askapenik behar ez duen bidea?
- 3.- Zeintzuk dira aho-bidearen ezaugarri nagusiak? Eta sudur-bidearen eta mihipeko bidearenak?
- 4.- Farmako bat barautan hartu behar duela esan behar badiogu gaixo bati, nola azalduko diogu?
- 5.- Zein da larruazalpeko bidearen arazorik handiena? Eta benabarneko bidearena?
- 6.- Zein organotan gertatzen da, normalean, farmakoaren metabolismoa?
- 7.- Zeintzuk dira hartu beharreko neurriak medikamentu bat ematerakoan, gaixoak giltzurrun gutxiegitasuna daukanean?
- 8.- Zein dago dosiarekin erlazionatuta?
  - a) Suszeptibilitatea
  - b) Toxikotasuna
  - c) Alergia
  - d) Pilaketa
- 9.- Zein agertzen da dosien arteko tarte txikia (desegokia) denean?
  - a) Suszeptibilitatea
  - b) Toxikotasuna
  - c) Alergia
  - d) Pilaketa
- 10.- Gaixo bati serumak bakarrik ematen badizkiogu, zer gertatuko zaio?
- 11.- Zertarako erabiltzen da albumina? Zein eragin desiragaitz sor ditzake?

12.- Zein gaixotasun duen pazienteari murriztu behar diogu sodio kloruroaren ekarpena?

13.- Zertarako neurtzen dugu PVC-a?

14.- Zeintzuk dira NPP-aren eta NPT-aren arteko ezberdintasunak?

15.- Zeintzuk dira Nutrizio Parenteralarekin ager daitezkeen eragin desiragaitzak? Eta Nutrizio Enteralaren eragin desiragaitz ohikoena? Eta arazo honen irtenbideak?